astiberri

6 URTETIK AURRERA



BIGA 9
ENERGIA BOLA BAT

Gidoia: **Romain Pujol**
Marrazkiak: **Vincent Caut**
Itzulpena: **Bego Montorio**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2026
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
64 orrialde. 17 x 21,5 cm. 12 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-10332-89-8

MARTXOAREN 5EAN SALGAI

Liburuki berri honetan, **tristura** eta **bakartzea** jorratzeko ausardia izan du ***Biga*** sailak, euskaraz jada **35.000 ale saldu** dituen sailak

Bola bat eztarrian

Biga energia hutsa da: beti da lehena jolasten, korrika egiten, salto egiten, zuhaitzetan galdutako baloien bila joaten, behar den itxura hartzen eta jolastokia alaitzeko bihurrikeriak egiten. Zaila da hura ez ikustea! Batzuetan, ordea, etxekoak eta lagunak gogaitzeraino heldu daiteke. Hori esaten diotenean, Biga tristatu egiten da. Eta oraingoan larria da kontua: energia olde bat izatetik... bola huts bat izatera pasatu da. Orain, biribil urdin xume bat baino ez da Biga, bizigabea eta mutua! Denek dute haren falta, denak daude kezkatuta... Noiz itzuliko da? Nola aterarazik murgilduta dagoen isiltasunetik? Zorionez, lagunek ondo ezagutzen dute Biga, eta badakite zeri ezin dion uko egin.

ASTIBERRI
astiberri.com
facebook.com/astiberri @astiberri.com @astiberri.infantil astiberri_ediciones
485 kutxatila. 48080. Bilbo • 689 213 317 • prensa@astiberri.com

Heldu da Bigaren, botere miresgarriak dituen heroi urdin txikiaren bederatzigarren liburukia. Album honetako abentura batzuk *Toboggan* aldizkari frantsesean argitaratu ziren aurretik, eta beste hainbeste berariaz sortu dira liburuki honetarako. “Hari gorriak” (albumaren amaierako kontakizun luzea) tristura eta bakartzea jorratzen ditu modu sotilean, dramatismo eta dogmatismorik gabe. Urtearen hasieran, Biga sailaren lehen liburukien berrargitalpenak kaleratu zituen Astiberrik, eta dagoeneko 35.000 ale saldu ditu euskaraz.

“Vincent Caut-en marrazki samurrek eta Romain Pujol-en gidoiek bete-betean asmatzen dute. Haur edo Lehen Hezkuntzako ikasleek pozaren pozez jarraituko dituzte heroi bihurri eta maitagarri honen abenturak”.

BDGest’

ROMAIN PUJOL (Albi, 1989) eskola garaiaz gero ari da bere unibertso propioa sortzen eta irakasleen eta eskolakideen karikaturak eskuetan erortzen zitzaion edozein paperetan marrazten. 2006an bigarren saria eskuratu zuen “Teenagers” kategorian Colomierseko komiki lehiaketan. Hura izan zen bere grina ogibi-de bihurtu behar zuelako baieztapena. 2007an, batxilergoa egiten ari zen bitartean, bere pertsonaia zoro-zoroak lantzen zituen blog bat sortu zuen. Arte Aplikatuen lizentzia lortu zuen 2011n, eta hala lasaitu zituen gurasoak. Bera eta Thitaume, Tolosako gidoigile bat, aukeratu zituzten Rabbids bideo-jokoa komikira egokitzeko. 2013an, Milan argitaletxeak gazteentzako pertsonaia berriak sortzea proposatu zion eta proposamen hura *Avni* (Biga) saila bihurtu zen azkenean, Vincent Cautek marraztua eta *Toboggan* aldizkarian aldez aurretik argitaratua (400.000tik gora harpidedun). Thitaume bere lankidearekin elkarlanean gazteentzako beste sail baten gidoian lantzen ari da: *Balez et Malina.*

VINCENT CAUT (Melun, 1991) 13 urterekin ustekabean komiki-blog batekin topo egin zuenean hasi zen komigintzan. Zaletasunez eta dibertitzeko, interneten komikia lantzeko abenturari ekitea erabaki zuen. 2009an bigarren saria eskuratu zuen Angulemako jaialdiko Révélation Blog lehiaketan, eta horri esker bere lehen albuma argitaratu ahal izan zuen, *Le Trésor de l’Île Mokoko* (“Mokoko uharteko altxorra”) Diantre! argitaletxearent-zat. Vincent Caut arte aplikatuen ikasketak egiten ari da gaur egun eta gazteentzako ilustrazioan dihardu azkenaldi honetan (*Okapi, Phosphore,* Makaka, La Boîte à bulles...). *Avni* (Biga) sailaz gainera, marraztu ditu baita ere Mes 100 premiers mots des animaux (“Animalien nire lehen 100 hitzak”) eta *Où es-tu, Léopold?* (“Non zaude, Léopold?”) saileko hiru liburuki.

SAIL BEREKO BESTE LIBURUAK EUSKARAZ:



Biga 1
Benetan identifikatu gabeko animalia
5. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-17575-85-4



Biga 2
Super laguna!
4. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-42-1



Biga 3
Errekreazioak, klik eta ekin!
4. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-80-3



Biga 4
Biga endreda-makila
3. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18909-08-5



Biga 5
Bat eta bakarra
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-18909-87-0



Biga 6
Arrosa koloreko bizitza!
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-19670-40-3



Biga 7
Txantxak sortzeko makina
3. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-19670-51-9



Biga 8
Aldaketak datoz!
2. edizioa
64 orrialde. 12 euro
ISBN: 978-84-10332-22-5

biga
Benetan Identifikatu Gabeko Animalia
Zorionak amatxo
AMEN EGUNA
EA, UMEAK: GAURKOAN, AMEN EGUNEKO OPARIAK BILTZEN IKASIKO DUGU.
Eskulanak
Oparirako paketeak
HASTEKO... PAPER ZATI NAHIKO HANDI BAT MOZTU, ETA ERDIAN JARRIKO DUGU OPARIA. GERO, PAPERA TOLESTU, ETA ZELOZ ITSATSI.
BUAAA! ZAILA DA GERO...
JOSTAGARRIA DA ETA!
JARRAIAN, HONELA TOLESTU ALBO BIAK...
MAISTRA, AMAITU DUT!
?
HARROPUTZA...
HARA... ZU BAI TREBEA!
NOLA EGIN DUZU? NIK EZIN DUT...
BEGIRA!
BRISTI-BRASTA!
TATXAN!
UALA!
MILESKER, BIGA!
NIRI ERE LAGUNDUKO DIDAZU?
BAITA NIRI ERE, MESE!
ETA NIRI!
ETA NIRI!
IJIJI!


DENEI BATERA LAGUNDUKO DIZUET!
POP!
POP!
POP!
POP!
POP!
POP!
BEGIRA ZER ERRAZA DEN: HEMENDIK TOLESTU, HAN ITSATSI...
FIRRIST!
LOTU!
FIRRIST!
MOZTU!
MOZTU!
AMAITUTA! ETA, ZER DERITZOZUE EMAITZARI?
POP!
POP!
TXALO EGINGO GENUKE...
ZU BAI OPARITXOA, BIGA...
AMAIA